



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

197. INFORMAZIO BULETINA

2024ko maiatza



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea



2024ko maiatza

ALBISTEAK

Ibai-ibilguak lehengoratzeko hainbat obra lizitatu dira.

Proiektuak Europako funtsekin kofinantzatuko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak ibaiak lehengoratzeko obra batzuk lizitatu ditu, 2020-2035 aldirako Oztopoak Iragazkortzeko Plan Zuzentzailean jasotakoak.

Zehazki:

- **Sarobe (Oiartzun), Granadaerreka eta San Pedro (Aia) eta Angiozar (Bergara) ibaietan oztopoak eraistea.**
 - Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 168.035,95 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2024ko maiatzaren 20an amaituko da.
 - Proiektu hauek Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko ditu, 2.7 helburu espezifikoaren barruan: "natura, biodibertsitatea eta azpiegitura ekologikoak (edo berdeak) babestea eta sustatzea, baita hiri-eremuetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea".
- **Legorretan, Oria ibaiko papeleria Etxezarreta 1 presa txikia eraistea (2. fasea).**
 - Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 450.142,38 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2024ko maiatzaren 27an amaituko da.
 - Jarduera hau "Natura 2000 ibai-sarearen hobekuntza ekologikoa Bizkaiko Golkoan" (LIFE21-NAT-ES-KANTAUERIBAI) proiektuaren barruan sartzen da. Proiektu horrek Europar Batasunaren LIFE finantza-tresnaren finantzaketa jaso du.

Informazio gehiago: "[Obra Hidraulietako](#)" webgunea.

Ideiak 2024-mugaz gaindiko aurrekontu partehartzaileak dirulaguntzen programaren deialdia.

Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura 150.000 eurokoa da.

Maiatzaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (88. zk.) argitaratu dira Ideiak 2024-mugaz gaindiko aurrekontu partehartzaileak dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan.

Dirulaguntza hauen helburua da Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoko herritarren artean loturak sortzen lagun dezaten mugaz gaindiko egitasmoak finantzatzea. Aurkezten diren proposamenak bat etorri behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoan identifikatutako erronkekin eta helburu estrategikoekin, eta lehentasuna emango zaie herritarren parte-hartzea sustatzen dutenei, gazte ikuspegia dutenei, eleaniztasuna garatzen dutenei edo/eta genero-ikuspegia dutenei. Aurkezten diren proiektuek mugaz gaindikoak izan behar dute.



2024ko maiatza

Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte pertsona fisikoek, elkarteek, fundazioek, enpresek, unibertsitateek, udalek, mankomunitateek edo interes ekonomikoko taldeek. Proiektu hauek derrigorrez, bi lurraldeetako eragileek elkarrekin aurkeztu beharko dituzte eta partzialki bada ere Gipuzkoan garatu behar dira.

Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 3an amaituko da.

Informazio gehiago: [2024ko deialdirako](#) esteka.

Fundiciones del Estanda SA enpresaren industria-plantatik hondar beroa aprobetxatzeko eta Beasaingo Antzizar kiroldegian erabiltzeko obrak lizitatu dira.

Proiektu hau Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko du.

Jasangarritasun Departamentuko Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza, hainbat lankidetzaren plan eta -esparrutan oinarrituta, hainbat jardura egiten ari da azken urteotan energiaren arloan, lurraldean energia aurrezte eta energia berriztagarrien aprobetxamendua sustatzeko eta sustatzeko.

Kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Fundiciones del Estanda enpresaren industria-instalaziotik datorren hondar-beroa aprobetxatzeko proiektu bat sustatzen du, Beasaingo udalerriko Antzizar Kiroldegia kirol-gunean erabiltzeko.

Lizitazioaren xede diren obrak bi proiektutan jasotzen dira:

- Barruti-sare bat instalatzeko proiektua, Fundiciones Estandan dauden labeetatik datorren hondar-beroa aprobetxatzeko.
- Antzizar kiroldegiko beroa sortzeko makina-gela aldatzeko proiektua.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 755.323,16 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 11an amaituko da.

Proiektu hau Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko du, 2.1 helburu espezifikoaren barruan: "energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea".

Informazio gehiago: [Kontratazio Plataforma](#).

Mugaz gaindiko Uda ikastaroak.

Mugaz gaindiko Uda Ikastaroen hirugarren edizioaren matrikula ireki da.

Programaren baitan 11 ikastaro izango dira Baionan uztailearen 15etik 19ra eta SALTILLO eskola-ontzian zeharkaldia egingo da uztailearen 2tik 5era.

Izen-ematea doakoa da.

Informazioa gehiago: [UIK web orria](#).



2024ko maiatza

Europako funtsak Gipuzkoan webgunea eguneratu da.

Next Generationi buruzko atal berri bat sartu da.

Atal berriak ondoko edukia jasotzen du:

- Definizioa eta helburuak.
- Araudia.
- Estekak.
- Aldundiak exekutaturako proiektuak.

Web orriak Gipuzkoari eta Europar Batasunari buruzko berriak jasotzen dituen atal bat ere badu. Bestek beste, Next Generation funtsekin finantzaturako deialdiei buruzko informazioa argitaratzen da ostiraletan. Aukera dago aktualitatea [harpidetza](#) baten bidez jasotzeko.

Informazio gehiago: [Europako funtsak Gipuzkoan webgunea](#).

Mendebaldeko Eremu Funtzionaleko proiektuen deialdia (AFOMEF).

Proiektuak aurkezteko epea urriaren 23an amaituko da.

Deialdia Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA) Lankidetzaren Programaren barruan dago. 14,8 milioi euroko zuzkidura du, eta gastu hautagarrien % 65eko kofinantzaketa-tasa.

Proiektu-hautagaitzak pertsona juridikoek osatutako lankidetzaren batek aurkeztu behar ditu, erakunde publiko eta/edo pribatuak osatutakoak, programak lehentasun bakoitzerako zehazten duenaren arabera. Lankidetzaren gutxienez, estatu desberdinetako (Espainia-Frantzia) bi entitatek edo mugaz gaindiko entitate juridiko batek osatuko dute, Mendebaldeko Eremu Funtzionalaren mugaz gaindiko lurraldean kokatuta daudenak.

Deialdiaren helburua Mendebaldeko Eremu Funtzionaleko (AFOMEF) herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten eta ukitutako lurraldeetan eragin nabarmena duten mugaz gaindiko lankidetzako proiektu egiturazailak sustatzea eta kofinantzatzea da. Horretarako, proiektuek bat etorri beharko dute Mendebaldeko Eremu Funtzionalaren lurralde-estrategia integratuaren helburu batekin edo batzuekin:

- H1. Mugaz gaindiko enplegu-arroa sendotzea, ezagutza, informazioa eta lan-merkatuko laguntza indartuz.
- H2. Mugaz gaindiko garraioa hobetzea, mugaz gaindiko mugikortasun jasangarria, interkonektatua eta multimodala bultzatuz.
- H3. Oztopo linguistikoa gainditzea, lurraldeko hizkuntzak hobeto ezagututa.

Informazioa gehiago: [Deialdirako esteka \(gaztelaniaz\)](#)



2024ko maiatza

EUROPAKO DEIALDIAK

NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK

Toki-erakundeetako administrazioak digitalki eraldatzeko eta modernizatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak aldatzen dira, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. [**Informazio gehiago.**](#)

Argitaratzen da administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. *Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urriaren 31an amaituko da.* [**Informazio gehiago.**](#)

Argitaratzen da Euskal Autonomia Erkidegoan lan-inguruan prestakuntza digitala finantzatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. *Eskabideak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 10ean amaituko da.* [**Informazio gehiago.**](#)

Ekosistema ekintzaile berritzailea bultzatzeko laguntzak deitzen dira, Ekosistema Ekintzaile Berritzailea Bultzatzeko Programaren barruan, 2024an Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan egindako edo egin beharreko jardueretarako. *Eskabideak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 17an amaituko da.* [**Informazio gehiago.**](#)



2024ko maiatza

BESTE DEIALDIAK

Europako Parlamentua. Europako gazteen EYE ekitaldien esparruen (villages) programa koordinatzeko deialdia.

- ***EP-COMM-SUBV-2025-EYE-VILLAGE-COORDINATION.***

CERV-2024-DAPHNE. Emakumeen eta haurren aurkako indarkeriari buruzko atala, Herritarren, Berdintasunaren, Eskubideen eta Balioen CERV Programan.

- ***CERV-2024-DAPHNE.*** Genero-indarkeria eta haurren aurkako indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko proposamenetarako deialdia.

BeActive. Erasmus Plus Programa. Kirol azpiprograma. Aktibotasunarentzako sariak. Lan-, belaunaldi-, toki- eta hezkuntza-esparruak.

- ***ERASMUS-SPORT-2024-BE-ACTIVE-AWARDS-***
 - - WORKPLACE: Saria lantokiari lotutako kirol-jardueren adibideei.
 - - GEN: Belaunaldien arteko kirolari buruzko saria.
 - - HERO: Pertsonarentzako saria tokiko kirol sustapenagatik.
 - - EDU: Kirolaren saria hezkuntzaren arloan.

GRAINS. Nekazaritza eta elikagaien gizarte-ekonomia. ETEen proiektu ekologikoetarako laguntzak. Merkatu bakarraren (SMP) eta ETEen (COSME) esparru-programak.

- ***SMP-COSME-2022-SEE-01.*** SEEn (gizarte-ekonomiako ETEak) "greening" (trantsizio berdea) egiteko laguntzak.

POLREC. Polimeroak birziklitzeko klusterrak. ETE industrialei nazioartekotzeko laguntza. Merkatu bakarraren (SMP) eta ETEen (COSME) esparru-programak. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

- ***POLREC.***

SILICON. Elektronika eta software aurreratuko euroklusterra. Helburu ekologikoa duen finantza-laguntza. Merkatu bakarraren (SMP) eta ETEen (COSME) esparru-programak. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

- ***SILICON.***

ELBE. Itsas energia berriztagarriaren euroklusterrak. Nazioartekotzeko laguntza Erresuma Batua, AEB eta Australiarako. Merkatu bakarraren (SMP) eta ETEen (COSME) esparru-programak. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

- ***ELBE.***

E-BOOST, elektromugikortasuneko euroklusterrak bultzatzea (ETEak berreskuratzea eta nazioartekotzea). Berrikuntza, bateriak, zero isuriak, ekitaldiak Merkatu bakarraren (SMP) eta ETEen (COSME) esparru-programak. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

- ***InnoTrans. "Bultzada elektronikoa" misioa.*** Hurrengo epemuga, 24.06.30.



2024ko maiatza

- **Bottom-up.** Elektromugikortasunaren sektoreetan, oro har, produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzen laguntzen du.
- **Bateriak eta horien balio-kate industrialak.** Bateriak garatzen laguntzen du.
- **Zero isuriak dituzten ibilgailuak.** Emisio garbirik gabeko ibilgailuetan garatzen laguntzen du. Hurrengo epemuga, 24.07.01.
- **Mugikortasuneko eta industriako hornitzaileen MISM bilera.**
- **Berrikuntzarako zerbitzu osagarriak.**

EuropeAid, garapenerako laguntza. RELEX-EEAS, EBko Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza eta Zerbitzua. Ekintzak Afrikan (5 herrialde), Amerikan (3), Ozeanian (1), Asian (2) eta Ekialdeko Europan (2). Kultura, gazteria, inklusioa, eskubideak, desgaitasuna, gizarte zibila, gobernantza demokratikoa, biodibertsitatea, iraunkortasuna.

- **EEAS Europako Kanpo Harremanetarako Zerbitzuaren webgunea.**
 - Arazo globaletan esku hartzen duten kultura-eragileei laguntzea. EuropeAid/181005/DH/ACT/Multi.
 - Desgaitasuna Afrikan. EuropeAid/180511/DD/ACT/Multi. Gizarte Zibilaren Eskualde Aliantzak indartzea, Desgaitasunaren Afrikako Protokoloa berrestearen alde.
 - Kongoko Errepublika Demokratikoa. EuropeAid/181242/DD/ACT/CD . Herritarren konpromisoa indartzea.
 - Zimbabwe. EuropeAid/180622/DD/ACT/ZW. Gizarte zibileko erakundeen gaitasunak eta komunitatean oinarritutakoak indartzea, toki- eta nazio-mailan, barne-gobernantza hobetzeko.
 - Tanzania eta Kenia. NAF Programa (NaturAfrica). EuropeAid/180615/DD/ACT/Multi. SOKNOT (Kenyako hegoaldea, Tanzaniako iparraldea) eta ERISAWA (ekialdeko Rifteko sabanak eta arro hidrografikoak) eremuetan bioaniztasuna eta komunitate-baliabide iraunkorrek kontserbatzea.
 - Malawi. EuropeAid/180825/DD/ACT/MW. Albinismoa duten pertsonen ahalduntze sozioekonomikoa.
 - Honduras. EuropeAid/181218/DD/ACT/HN. 2024ko proposamen orokorretarako deialdia.
 - Guatemala. EuropeAid/181175/DD/ACT/GT. Auzotasun, Garapen eta Nazioarteko Lankidetzarako Tresna - Europa Globala (NDICI). Giza Eskubideen eta Demokrasiaren eta Gizarte Zibileko Erakundeen gaikako programak.
 - Peru. EuropeAid/179470/DD/ACT/PE. Lan duina: gazte kalteberen integrazio ekonomiko eta sozialerako bitartekoak.
 - Papua- Ginea Berria. EuropeAid/180704/DD/ACT/PG. Gizarte zibileko erakundeek gobernanzako eta garapenerako eragile independente gisa duten zeregina indartzea, norberaren eskubidez.
 - Turkia. EuropeAid/180489/DD/ACT/TR. Giza eskubideen defendatzaileei laguntzea.
 - Jordania. EuropeAid/180890/DD/ACT/JO. Giza eskubideak, demokrazia eta gizarte zibila babestea.
 - Moldova. EuropeAid/181189/DD/ACT/MD. Gizarte zibileko erakundeei laguntzea.
 - Montenegro. EuropeAid/180655/DD/ACT/ME. Gizarte zibileko erakundeak laguntzeko 2023ko funtsa.
 - Montenegro. EuropeAid/180625/DD/ACT/ME. Giza Eskubideei eta Demokrasiari buruzko 2023ko gaikako programa.



2024ko maiatza

Digital Europe. ECCC, Zibersegurtasuneko Konpetentzien Europako Zentroa. Estatu kideekin koordinatzeko zentro nazionalen sarea hedatzea.

- **DIGITAL-ECCC-2024-DEPLOY-NCC-06-MS-COORDINATION.**

Digital Europe. DIGITAL-2024-BESTUSE. Zerbitzu publikoen artean erabilera interoperagarri onena duten atalak.

- **DIGITAL-2024-BESTUSE-06-INNOV-ADMIN.** Administrazio Publiko Berritzaile eta Konektatuak.

Digital Europe. Atal aurreratuak eta inklusiokoak, trebetasun digitalekin. Enplegua eta genero-berdintasuna. DIGITAL-2024-ADVANCED-

- **-SKILLS-06-WOMEN.** "Neskatoak eta emakumeak arlo digitalean".
- **-DIGITAL-06-SKILLS.** Enplegu eta Trebetasun Digitalen Plataforma.

Digital Europe. Datu-hodeiaren eta adimen artifizialaren atalak. Aplikazioak osasunean, genetikan, fabrikazioan, prestakuntzan, diseinuan, ekologian, energian, hizkuntzan eta beste batzuetan. DIGITAL-2024-CLOUD, -DATA, -AI.

- **DIGITAL-2024-CLOUD-DATA-** Hodeiko konputazioa eta datuak.
 - -AI-06-GENOME. "Milioi 1 genoma baino gehiago": iraunkortasuna eta teknologiaren erabilera.
 - -AI-06-COMPETENCE. 3Drako gaitasun-zentroa (3 dimentsioko diseinuaren implementazioa).
 - -AI-06-AGRISPACE. Nekazaritzako datuen espazioa (implementazioa).
 - -DATA-06-SKILLS. Trebetasunetarako datu-espazioa (implementazioa).
 - -DATA-06-MANUFSPACE. Fabrikatzeko datu-espazioa (implementazioa).
 - -DATA-06-HEALTHCARE-AI. Osasun-datueterako sarbidea duten erakundeei laguntzea, osasun-arretan adimen artifizialerako bide eraginkorrek sustatzeko.
- **DIGITAL-2024-CLOUD-AI-** Hodeiko konputazioa eta adimen artifiziala.
 - -06-HEALTHRECORD. Osasun-inguruneetan erregistro mediko elektronikoak trukatzeko Europako formatua zerbitzutan bideragarria dela frogatzea.
 - -06-HEALTHACCESS. Pazienteek beren osasun-datuak eskura ditzaten laguntzea, EB osoko herritarrentzako osasun-zerbitzuen testuinguruan.
 - -06-GREENDEAL. Europako Itun Berdearen datu-eremua.
 - -06-ENERSPACE. Datu energetikoen gunea.
 - -06-EDGE. Europako cloud-edge zerbitzuen erreferentziazko hedapenak. Hodei-konputazioa (cloud) eta erabiltzailearengandiko hurbilekoa (edge) konbinatzen dituzten zerbitzuen garapen industrialak, hala nola IoT Edge (gauzen internet) eta Telco Edge (telekomunikazioetako operadoreei aplikatua).
- **DIGITAL-2024-AI-ACT-06.** Adimen artifizialeko esplorazio-ekintzak.
 - -TESTAI. Batasunean adimen artifizialeko etorkizuneko entsegu-instalazioak sortzeko ekintza pilotua.
 - -INNOV. EBko adimen artifizialeko berrikuntza-azeleragailua prestatzeko ekintza.
- **DIGITAL-2024-AI-06-** Adimen artifizialeko beste aplikazio batzuk.
 - -LANGUAGE-01. Hizkuntzaren Teknologietarako aliantzaren laguntza sinpleak (SG).
 - -LANGUAGE-02. Hizkuntzaren Teknologietarako Aliantzaren koordinazio- eta laguntza-ekintzetarako laguntzak.



2024ko maiatza

- -IMAGING. Erresonantzia magnetiko metaboliko bidezko irudi-sistemei laguntzeko adimen artifiziala, kuantikoki hobetua.
- -FINETUNE. Europar oinarriko doikuntzak egiteko errendimendu handiko kode irekiko eredu bat garatzea.

Ozeanoetarako misioa. Horizon esparru berritzailea. HORIZON-MISS-2021, 2022-OCEAN-. Itsas eta ibai-arroak, bioaniztasuna, akuikultura-erabilerak, kutsadura, klimarekiko erresilientzia.

- **Restore4Life. -2022-OCEAN-01-02.** Elkartutako eskualdeetarako deialdi irekia. Danubio ibaiaren arroko itsasargia – Hezeguneak, alubioi-lautadak, kostaldeko hezeguneak eta padurak eta horien bioaniztasuna babestea eta lehengoratzea.
- **OLAMUR. -2021-OCEAN-04-01.** Elkartutako eskualdeetarako deialdi irekia. Baltikoko eta Ipar Itsasoko arroetako itsasargia: inpaktu txikiko itsas akuikultura eta itsas eremuaren erabilera balioaniztuna. Hurrengo epemuga, 24.06.30.
- **REMEDIES. -2021-OCEAN-03-01.** Elkartutako eskualdeetarako deialdi irekia: zero hondakinetarantz, itsas plastikoak balorizatzeko irtenbideak eta prebentzioa. Hurrengo epemuga, 24.06.05.
- **SeaClear2.0. -2021-OCEAN-03-01.** Eskualde elkartuentzako deialdi irekia: Mediterraneoko itsasargiaren prebentzioa: zaborrak eta plastikoak eragindako kutsadura prebenitzeko, minimizatzeko eta konpontzeko ekintzak.
- **A-AAGORA. -2021-OCEAN-02-03.** Eskualde elkartuentzako deialdi irekia: Baltikoko, Atlantikoko eta Artikoko arroetako itsasargia: itsasoko eta kostaldeko ekosistemak leheneratzea eta erresilientzia klimatiko handiagoa.

JU-SNS. 6G-XR. Errealitate hedatua (XR) 6G mugikorren teknologiarekin. Sistema eta sare adimendunetarako Europako erronka bateratua. Berrikuntza-esparrua HORIZON-JU-SNS-2022-STREAM-C-01-01.

- **JU-SNS. 6G-XR.** 5G eta 6G sare mugikorren teknologia berriak bizkortzeko EBk bultzatutako partzuergoa. 6G-XR plataformarako eta sare-gaitzaileentzako laguntza (B korronteari lotuak), smart sistema eta sareen erronka bateratuaren barruan (JU-SNS), azpiegituri buruzko esperimertzioak egiteko C korrontean (stream C), A (5Gri eskainia), B (6Gri eskainia) eta D (ikuspegi bertikaleko proiektuei eskainia (balio industrial sektorialeko kate oso bati zuzendua) korronteen osagarri gisa.

Osasun-berrikuntza, EBren erronka bateratua. Biomarkatzaileen bidezko jarraipena, lan-fluxu jasangarriak, eta kardiologiako atal espezifikoa. Horizon Berrikuntza-esparrua.

- **HORIZON-JU-IHI-2024-07-.** Osasun-berrikuntza ekimenaren (IHI) baterako erronka (JU).
 - -03-single-stage. Biomarkatzaileen balidazio klinikoa diagnostikorako, gaixotasunaren bilakaeraren eta tratamenduarekiko erantzunaren jarraipena egiteko.
 - -02-single-stage. Erabiltzailea ardatz duten teknologiak eta ospitaleko lan-fluxu optimizatuak, arreta mediko iraunkorreko lan-indarra lortzeko.
 - -01-single-stage. Bihotzeko gaixotasunen kudeaketa klinikoa hobetzea, detekzio goiztiarretik tratamendura.

EDCTP3. Infekzioen aurkako lerroa, EBk Afrikarako egindako saiakuntza klinikoen elkarteara. Tximino-baztagaren aurkako larrialdi-ekintza. Horizon Berrikuntza-esparrua.



2024ko maiatza

- **HORIZON-JU-GH-EDCTP3-2024-Mpox.** Europako eta Garapen Bidean dauden Herrialdeetako Saiakuntza Klinikoen Elkarte (EDCTP). EBk Saharaz hegoaldeko Afrikarako sustatua. 3. (EDCTP3) Osasun orokorreko baterako ekimena (JU), gaixotasun infekziosoei buruzkoa. Monkeypox edo tximino baztanga agerraldiaren ikerketari erantzuteko larrialdi-funtsak mobilizatzea.

ERA4Health, EBko osasun-arloko I+G atala. HORIZON-HLTH-2021, 2022, 2024, -DISEASE, -CARE berrikuntza-esparrua. Gaixotasun eta zainketen atalak. Pandemiak, nanoteknologia, nutrizioa eta garuna, kontratazio publikoa.

- **-2024-DISEASE-17-01.** Pandemia baten aurrean prestatzea eta erantzutea: kofinantzatutako europar elkarte baterako prestaketa-lana mantentzea eta hobetzea.
- **-2022-DISEASE-03-01.** Nanoteknologia eta teknologia aurreratuak gaixotasunen prebentziorako, diagnostikorako eta terapiarako. Hurrengo epemuga, 24.06.13.
- **-2022-DISEASE-03-01. NutriBrain.** Garunaren zahartzea nutrizioaren eta bizimodu osasungarriaren bidez modulatzeko.
- **-2021-CARE-05-04.** Procure 4 Health, P4H sareko 3. senidetze-deialdia (erakundeen arteko lankidetzak), osasun-hornikuntzaren berrikuntzarako. Hurrengo epemuga, 24.06.17.

EIT UM. Teknologiaren Europako Institutua. Hiri Mugikortasuneko Atala (UM) eta KIC (Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateak). Sektorako ekosistemaren inpaktu-berrikuntzetarako eta -inbertsioetarako laguntza. Berrikuntza esparrua HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITURBANMOBILITY.

- **Berrikuntzarako deialdi ireki nagusia 2025.** Hurrengo epemuga, 24.06.04.
- **IRP Impact Ventures.** Inpaktu-berrikuntzetarako Inbertsiorako Prestakuntza Programa. Hurrengo epemuga, 24.06.19.
- **Enpresa-aliantza estrategikoa.** Inplikaturako eragileen ekosistemaren E & S Saila. Deialdi ireki iraunkorra.

EIT RawMaterials Booster 2024-25. Teknologiaren Europako Institutuaren (EIT) lehengaien atalean eta haren KICen (Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateak) enpresa txiki eta ertainei eta sortzen ari diren enpresei bultzada emateko deialdia. Horizon Berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITRAWMATERIALS.**

EIT. Ignite NEB eta Grow NEB. Teknologiaren Europako Institutuaren laguntzak Europako Bauhaus Berriaren ekimenak antolatzen dituzten erakundeei. Teknologiaren Europako Institutua eta bere berrikuntza eta ezagutzaren KIC komunitateak. Horizon Berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIT-2023-25-Cross-KIC-Strategic-Synergies.** EITren komunitatearen laguntza Europako Bauhaus Berriko Ignite ekitaldietarako edo NEBren Grow hazkunde-programarako. "Sinergia estrategikoa".

EIT. Calling2Scale Health. Gorabideko neuroteknologiako enpresak Ipar Amerikara nazioartekotzea. Teknologiaren Europako Institutua eta bere berrikuntza eta ezagutzaren KIC komunitateak. Berrikuntza esparrua HORIZON-EIT-2023-25-Cross-KIC-Strategic-Outreach.



2024ko maiatza

- **Calling2Scale Health.** Eskalate- eta globalizazio-programa, hazten ari diren neuroteknologiako enpresa europar berriak AEB eta Kanadako ekialdeko kostaldeko osasun-berrikuntzako fokuetan sar daitezzen. EITren eta bere KICen kanpo-ekintza estrategikoaren atala.

EIE Connect, WomenTechEU. Europako Berrikuntza Ekosistemen (EIE) programako interkonexioetarako atala. WomenTechEU emakume eta teknologiarako deialdia. Berrikuntza esparrua HORIZON-EIE-2023-CONNECT-01-01.

- **Women TechEU.**

EIC, UASEEDS, UkrainianTech. Europako Ikerketa Kontseilua. Ukrainako I+G teknologikorako laguntza. Enpresa-aholkularitza eta finantza-laguntza. Berrikuntza esparrua HORIZON-EIC-2022-UKRAINIANTECH-01-01.

- **UASEEDS. Ausardia-haziak (Seeds of Bravery).** Startupen elkarten sare paneuroparra, Ukrainako erakunde berritzaile teknologikoak Europako ekosistemetan integratzen laguntzeko eta Ukrainako operazioak hobetzeko.
 - 1 A. Ukrainako teknologia-enpresa berrientzako enpresa-aholkularitzako zerbitzuetarako deialdi irekia.
 - 2 A. Ukrainako teknologia-enpresa berriei laguntzeko programetarako finantza-laguntza emateko deialdi irekia. Hurrengo epemuga, 24.06.25.

PPPA. Proiektu pilotuen eta prestakuntza-ekintzen programa. Berrikuntza energetikoa duen arrantza-ontziaren erakuslea.

- **PPPA-2024-FISHVESSELDEMO.** Proiektu pilotua: Arrantza-sektorean trantsizio energetikoa sustatzea. Hurrengo epemuga, 24.06.11.

EMFAF, Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtza. Itsas Plangintza Espaziala Ipar Itsasorako.

- **EMFAF-2024-PIA-MSP.** Lehetasunezko berrikuntza-ekintzak, PIA. Hurrengo epemuga, 24.06.11.

EFSA. Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza. Izurriteak aztertzeke parametroak zenbatesteko protokolo estatistikoak eta esperimentalak.

- **EUBA-EFSA-PLANTS-2024-01.** (EUBA – Europar Batasuneko organoak eta agentziak.). Hurrengo epemuga, 24.07.04.

EU4Health, Osasunerako EB. Gobernu kanpoko erakundeak. Operatibitate-laguntzetarako Elkartzeko Esparru Akordioa.

- **EU4H-2024-OG-FPA.** GKEei funtzionamendurako dirulaguntzak emateko (2025-2026) Elkartzeko Esparru Akordio baterako proposamenen deialdia. Hurrengo epemuga, 24.06.13.

EU4Health, Osasunerako EB. Giza jatorriko substantzien erabilerak.

- **EU4H-2023-PJ-2-1.** PJ ekintza (pilotu bateratua), giza jatorriko substantzia berrien (hala nola amaren esnea edo mikrobiotaren transplanteak) segurtasunari eta kalitateari buruzko jardueretarako dirulaguntzak emateko. Hurrengo epemuga, 24.06.11.



2024ko maiatza

Europako Gizarte Funtsa Plus. Enpleguari eta gizarte-berrikuntzari buruzko EaSI atala. Gizarte-inbertsioen inaktuaren neurketak.

- **ESF-2024-SOC-IMP.** Gizarte-berrikuntzako proposamenen deialdia: inaktu sozialeko inbertsio-merkatuko eragileentzako inaktu-jarduneko inteligentzia-zerbitzuak garatzeko ekintzak. Hurrengo epemuga, 24.07.04.

Europako Gizarte Funtsa Plus. EURES, EBko enplegu-zerbitzuen sarea. Helburu espezifiko duen mugikortasun-programa, TMS.

- **ESF-2024-EURES-TMS.** Hurrengo epemuga, 24.06.04.

Creative Europe. Komunikabideei eta kulturari buruzko atalak. Filmak merkaturatzea. Musikaren sektoreari laguntzea (LIVEMX, Musikak Europa mugitzen du) eta Ukrainako profesionali (Kulturak Laguntzen du).

- **CREA-MEDIA-2024-FILMSALES.** Europako zinemako salmenta-eragile edo -erakundeei laguntzea. Hurrengo epemuga, 24.06.20.
- **LIVEMX. CREA-CULT-2022-MME.** Music Moves Europe. Europako musikaren sektoreko hainbat azpisektore eta ekimenentzako laguntzak, zuzeneko musika barne. Hurrengo epemuga, 24.06.25.
- **Culture Helps. CREA-CULT-2023-COOP-UA.** Ukrainatik joandako kultura- eta sormen-sektoreetako pertsonak integratzeko proiektuetarako laguntzak. Hurrengo epemuga, 24.06.22.

CERV. Herritarrak, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak. Herritartasunaren eta memoriaren atalak. Demokrazia, migrazioak, EBren integrazioa.

- **CERV-2024-CITIZENS-REM.** Hurrengo epemuga, 24.06.06.
 - -TRANSITION. Trantsizio demokratikoa, zuzenbide-estatuan, demokrazian eta oinarritzko eskubideetan oinarritutako gizarte eraikitzea eta indartzea.
 - -HOLOCAUST. Genozidioaren, gerrako krimenen eta gizateriaren aurkako krimenen memoria indartzea, EBko demokrazia indartzeko.
 - -HISTMIGRATION. Migrazioa, deskolonizazioa eta gizarte europar multikulturalak.
 - -EUINTEGRATION. Europaren integrazioa eta hura definitu duten lorpenak.

EuropeAid, garapenerako laguntza. RELEX-EEAS, EBko Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza eta Zerbitzua.

- Ekintzak Europako 4 herrialdetan, 6 Afrikan, 3 Asian eta 2 Amerikan. EBrako herrialde hautagaiak, mugak, lehia-politika, giza eskubideak, gizarte zibila, komunikabideak, desgaitasuna, haurrak, elikadura, energia, zirkulartasuna, digitalizazioa, finantzak, kultura.
- **EEAS Europako Kanpo Harremanetarako Zerbitzuaren webgunea.**
 - Ipar Mazedonia eta Albania. EuropeAid/181076/DD/ACT/Multi. Mugaz gaindiko programa, 2022rako atxikitze-aurreko Laguntza Tresnaren (IPA III) esleipenen esparruan. Hurrengo epemuga, 24.06.26.
 - Montenegro. EuropeAid/181158/DD/ACT/ME. Mugen Kudeaketa Integratutarako laguntza osagarria edo "aurrekonturako arlokako laguntza". Hurrengo epemuga, 24.06.18.
 - Moldova. EuropeAid/181549/DD/ACT/MD. Lehiaren Kontseiluaren gaitasun instituzionalak indartzea, EBren jardunbide onenekin bat etorritik lehia-politika eta estatu-laguntzak betearazteko. Hurrengo epemuga, 24.06.25.



2024ko maiatza

- Gambia. EuropeAid/181590/DD/ACT/GM. Inklusioan aurrera eginez: desgaitasuna duten pertsonen eskubideak hobetzea. Hurrengo epemuga, 24.06.26.
- Mauritania. EuropeAid/181215/DH/ACT/MR. Gizarte zibileko erakundeak eta giza eskubideen defendatzaileak instituzionalki eta operatiboki indartzen laguntzea. Hurrengo epemuga, 24.06.24.
- Malawi. EuropeAid/181208/DD/ACT/MW. Gizarte zibileko tokiko erakundeen gaitasunak, sustapena eta ekimenak garatzen laguntzea, estatuko edo tokiko haurren elikagaiak aberasteko. Hurrengo epemuga, 24.06.06.
- Mozambique. EuropeAid/181057/DD/ACT/MZ. Herritartasun Aktiboko Programa. Hurrengo epemuga, 24.07.02.
- Eswatini. EuropeAid/180946/DD/ACT/SZ. Gizarte zibilari laguntzea. Hurrengo epemuga, 24.06.05.
- Eswatini. EuropeAid/180910/ID/ACT/SZ. Trantsizio energetikorako katalizatzailea. Hurrengo epemuga, 24.06.06.
- Kenia. EuropeAid/180863/DD/ACT/KE. Gazteak, gizarte zibila eta hedabide independenteen erakundeak ahalduntzea. Hurrengo epemuga, 24.06.06.
- Palestina. EuropeAid/181150/DD/ACT/PS. Moneta Agintaritzaren eta haren zeregina indartzea, finantza-sektorearen egonkortasuna, gardentasuna, kontuak ematea eta trantsizio digitala bultzatzeko. Hurrengo epemuga, 24.05.31.
- Líbano. EuropeAid/180880/DD/ACT/LB. Komunitateak kulturaren, gizarte-kohezioaren eta parte-hartze demokratikoaren inplikatze ekimenak babestea. Hurrengo epemuga, 24.06.11.
- Kirgizstán. EuropeAid/181292/DD/ACT/KG. Gizarte zibilaren ekimenak babestea. Hurrengo epemuga, 24.06.13.
- Trinidad y Tobago. EuropeAid/179459/DD/ACT/TT. Giza Eskubideetarako eta Demokraziarako 2024ko proposamenen deialdia. Hurrengo epemuga, 24.06.20.
- El Salvador. EuropeAid/179331/DD/ACT/SV. Ekonomia zirkularrari laguntzea. Hurrengo epemuga, 24.06.11.

Erasmus Plus. Lanbide-heziketako, eskolako, helduentzako, goi-mailako heziketako edo prestakuntza digitaleko politikak esperimentatzea.

- **ERASMUS-EDU-2024-POL-EXP.** Hurrengo epemuga, 24.06.04.
 - -VET. Bokaziozko hezkuntza eta entrenamendua (FP).
 - -SCHOOL. Eskola-hezkuntza.
 - -MICRO-CRED: mikrokredentzialak. Prestakuntza laburren akreditazio digitalak.
 - -HIGHER-EDU. Goi-mailako hezkuntza.
 - -DIGITAL. Hezkuntza digitala.
 - -ADULT. Helduen hezkuntza.

Erasmus Plus. Irakasleen akademiak. Bikaintasunerako lankidetzak.

- **ERASMUS-EDU-2024-PEX-TEACH-ACA.** Hurrengo epemuga, 24.06.06.

Gazte ekintzaileentzako Erasmus. Merkatu Bakarreko (SMP) eta ETEen Lehiakortasuneko Programak (COSME).

- **SMP-COSME-2024-EYEJR-01.** Junior deialdia. Hurrengo epemuga, 24.06.27.



2024ko maiatza

Ukraina-EB klusterrak. Lankidetzeta programa. Merkatu Bakarreko (SMP) eta ETEen Lehiakortasuneko Programak (COSME).

- **SMP-COSME-2024-CLUSTERUA-01.** Hurrengo epemuga, 24.06.04.

GreenBoost4WISE. Gizarte-ekonomiako ETEen (EES) ekologizazioa hurbileko ekosistemetan eta estatus gaidiko lankidetzarekin. Merkatu Bakarreko (SMP) eta ETEen Lehiakortasuneko Programak (COSME).

- **SMP-COSME-2022-SEE-01.** GreenBoost4WISEren lehen deialdi irekia hirugarrenei laguntza finantzarioa emateko. Hurrengo epemuga, 24.06.30.

SMP-kontsumoa. Informazio-ekintzak, finantza-produktuei buruzko atal espezifikoarekin, eta kontsumo-arbitrajeko erakundeentzako edo kontsumitzaileen ordezkari diren erakundeentzako finantzaketak. Merkatu Bakarraren Programa (SMP).

- Hurrengo epemuga, 24.06.06.
- **SMP-CONS-2024-EDU.** Tokiko kontsumoari buruzko hezkuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza bultzatzea.
- **SMP-CONS-2024-DA.** DAREN zerbitzu egonkorren sustapena (debt advice), zorrari buruzko aholkularitza.
- **SMP-CONS-2024-ADR-RAD.** ADR erakundeei (Eztabaiden Ebazpen Alternatiboa) eta RADen arabera (Ordezkaritza Ekintzei buruzko Zuzentaraua) kalifikatutako erakundeei finantza-laguntza ematea.

ERC SJI Frontiers. Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC) Zientzia Kazetaritzako Ekimena (SJI). Egonaldi murgiltzaileetarako egoitza-programa edo bekak.

- **ERC-2023-SJI-1.** Hurrengo epemuga, 24.06.05.

ERA, Europako Ikerketa Arloa. CoARAREN Boost laguntza, Ikerketaren Ebaluazioan Aurrera Egiteko Koalizioa, eta Balkanetako eskualdeko ikertzaile-taldeentzako laguntzak (Reinforcing eta Policy Answers).

- ERA eremua hedatzeko WIDERA atala.
- **CoARA Boost. HORIZON-WIDERA-2023-ERA-01-07.** Ebaluazioan berrikuntzak edo erreformak bultzatzea (Boost). Hurrengo epemuga, 24.06.26.
- **Reinforcing. HORIZON-WIDERA-2022-ERA-01-40.** Mendebaldeko Balkanetako EBrako hautagai diren herrialdeetan ikertzeko "inkubagailu-programa". "Erakunde- eta lurralde-aldaketak ikerketa eta garapen ireki eta berritzaileentz" ekimena. Hurrengo epemuga, 24.05.30.
- **Policy Answers - Txekeak. HORIZON-WIDERA-2021-ACCESS-06-01.** Berrikuntzarako bonua edo txekea (voucher). "Politiken bidezko erantzunak". Mendebaldeko Balkanetako I+Grako laguntza. Hurrengo epemuga, 24.06.26.
- **Policy Answers - Elkartrukeak. HORIZON-WIDERA-2021-ACCESS-06-01.** Mendebaldeko Balkanetako I+G taldeen mugikortasun-plana.

Digital Europe. Adimen artifizialeko, errendimendu handiko konputazioko, mugikortasun- eta osasun-datuetako eta ETEen zibersegurtasuneko espazio espezializatuak.



2024ko maiatza

- **DIGITAL-EUROHPC-JU-2023-ACADEMY-02-01.** Errendimendu handiko konputazioko EuroHPC ekimenaren prestakuntza birtualeko akademia. Hurrengo epemuga, 24.06.06.
- **DIGITAL-2024-CLOUD-AI-06-MOBSPACE.** Adimen artifizialeko Europako eremu bateratua, mugikortasunari buruzko datuetarako. Hodeiko datu-teknologien atala (cloud).
- **DIGITAL-2024-AI-ACT-06-SANDBOX.** Adimen artifizialaren erregulazioari buruzko sandboxak ("hareazko kaxoiak" edo espazio esperimentalak), EB mailan koordinatuta eta lagunduta. Digital Europe-ren IA ataleko ekintza estrategiko esperimentalen azpiatala.
- **DIGITAL-2022-CYBER-02-NAT-COORDINATION. CYBER+ALT:** Maltan zentratutako ETEentzako zibersegurtasuneko dirulaguntzen programa handitzea. Hurrengo epemuga, 24.06.17.
- **DIGITAL-2021-DEPLOY-01-HEALTH.** Digital Health Uptake prestakuntza deialdia, osasungintzan eta zainketetan irtenbide digitalak hartzeko azpiprograma. Hurrengo epemuga, 24.06.14.

EUROHPC. Errendimendu handiko konputazioa eta kuantikoa. India-EB Lankidetzak. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EUROHPC-JU-2023-INCO-06-01.** Errendimendu Handiko Konputazioari (HPC) eta Teknologia Kuantikoei buruzko India-EB Lankidetzak Asmoaren Akordioa inplementatzen laguntzea. Europako HPC enpresa bateratua (JU). Hurrengo epemuga, 24.06.06.

EJP SOIL. Nekazaritzako lurzorua kudeatzeko Europako programa bateratua. Azpiegitura teknologikoetarako sarbidea. Elikagaien segurtasun iraunkorrerako karbono gutxiko teknologien LC-SFS lerroa. Horizon berrikuntza esparrua.

- **LC-SFS-20-2019.** Hurrengo epemuga, 24.06.01.

ER, Europe Rail. I+Gko intsignia atalak (FA). Huts-hodia (Hyperloop), akoplamendu automatiko digitala (DAC) eta SNS programarekiko sinergia (Sareak eta Sistema Adimendunak). Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-ER-JU-2024-** Europako trenbidearen (ER) enpresa bateratua (JU). Hurrengo epemuga, 24.06.05.
 - -FA7. Hyperloop – industrializaziorako ibilbide-orria eta kontzeptu bateratu inplementagarria.
 - -FA5. DAC. Akoplagailu automatiko digitala: baimena bermatzeko probak, buruaren eta tiro-engranajearen trukagarritasuna konbinatzea eta akoplagailu hibridoa muntatzeko soluzioak
 - -FA2-SNS. Sinergia EU-Rail – SNS. Akoplagailu automatiko digitala: baimena bermatzeko probak, buruaren eta tiro-engranajearen trukagarritasuna konbinatzea eta akoplagailu hibridoa muntatzeko soluzioak.

EIT Manufacturing. Goi-mailako beste institutu batzuekiko lankidetzak. EIT Teknologiaren Europako Institutuaren eta KIC berrikuntza- eta ezagutza-komunitateen fabrikazio-dibisioa. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITMANUFACTURING.** EIT-M dibisioaren proposamenen deialdia, goi-mailako hezkuntzako erakunde berriak EITren fabrikazioko maisutza- eta doktoretza-eskoletara eta maisutza-programa berrietara atxikitzeko. EITM BP 2023-25 jarduera-plana. Hurrengo epemuga, 24.06.17.



2024ko maiatza

EIC. Europako Berrikuntza Kontseilua. I-Capital eta EUSIC sariak I+G+b berri eta sozialari, eta EIC Solvers lerroa hornikuntza publiko berritzaileak. Horizon esparrua.

- **HORIZON-EIC-2024-ICAPITAL-PRIZE-02.** Berrikuntzaren hiriburutzaren sariak. Hurrengo epemuga, 24.06.18.
 - -1. Kategoria orokorra.
 - -2. Berrikuntza emergentea.
- **HORIZON-EIC-2024-EUSIC-PRIZE-04.** Gizarte Berrikuntzako Europako Lehiaketa (EUSIC) 2024. Hurrengo epemuga, 24.06.11.
- **EIC Solvers. HORIZON-EIC-2021-PUBLICBUY-01-01.** Sektore publikotik pribaturako erosketaprozesuan baterako sorkuntza publiko-pribatuaren alorreko "konpontzaileentzako" deialdia.

DRG4Food, Chameleon. Datuen eta dronen erabilerak nekazaritzaren eta elikagaien sektorerako. Bioekonomiaren CL6 klusterra Horizon berrikuntza esparruan.

- Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programaren 6. klusterra (CL6). Elikadura, Bioekonomia, Baliabide Naturalak eta Nekazaritza. Gobernantza berritzailearen helburuaren, ingurumen-behaketaren eta Itun Berdea babesteko irtenbide digitalen atala.
- **HORIZON-CL6-2024-GOVERNANCE-02-01.** "Datuen Nekazaritza" ren Europako lankidetzak. Hurrengo epemuga, 24.06.25.
- **DRG4Food. HORIZON-CL6-2022-GOVERNANCE-01-10.** Herritarrak ahalduzko ikuspegiak eta tresnak probatzea, elikaduraren eta nutrizioaren esparruan "datuen gaineko eskubideak" erabil ditzaten. Hurrengo epemuga, 24.06.21.
- **CHAMELEON. HORIZON-CL6-2021-GOVERNANCE-01-21.** Dronen potentziala ibilgailu balioaniztun gisa: arriskuak eta balio erantsiak. Hurrengo epemuga, 24.06.30.

Up2Circ, InTransit, Stage. Dronen potentziala ibilgailu balioaniztun gisa: arriskuak eta balio erantsiak. 4 klusterra Horizon berrikuntza esparruan.

- Digitalizazio, industriako eta espazioko 4. klusterraren laguntza- eta koordinazio-ekintzak (CSA). Atalak EBren erresiliencia-estrategia gisa definitutako hainbat arlo hartzen ditu barne.
- **Up2Circ. HORIZON-CL4-2022-RESILIENCE-01-26.** ETEetan ekonomia zirkularra bultzatzeko programa. Hurrengo epemuga, 24.06.01.
- **InTransit. HORIZON-CL4-2022-RESILIENCE-01-26.** Partzuergoaren proiektua. Ehungintzako, aeroespazioko eta eraikuntzako ETEen erresiliencia indartzea sektore berdeagoetara eta digitalagoetara igartzeko, gizarte- eta enpresa-berrikuntzarekin. Hurrengo epemuga, 24.06.04.
- **STAGE. HORIZON-CL4-2021-RESILIENCE-01-29.** Plataforma edo ekosistema digitala, iraunkortasunera bideratutako berrikuntzarako baliabide- eta finantzaketa-iturri-sare batean sartzeko. Hurrengo epemuga, 24.06.01.

NGI Taler, Mobifree, Core. Hurrengo belaunaldiko Internet. TALER (ordaintzeko metodoak), Mobifree (mugikorren software etikoa) eta NGI 0 Core (orokorra) eremuak. 4 klusterra Horizon berrikuntza esparruan.

- Digitalizazio, industria eta espazioko 4. klusterra. Teknologia humanizatzaileen "Human" atala. Hurrengo epemuga, 24.06.01.



2024ko maiatza

- **NGIO Core. HORIZON-CL4-2022-HUMAN-01-03** – (2024-06C). Interneteko arkitektura eta teknologia deszentralizatuak. Ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak.
- **HORIZON-CL4-2023-HUMAN-01-12**. NGIra (Next Generation Internet) berrikuntza pilotuko ekintzak.
 - NGI Taler. (2024-06T). TALER ordainketa-metodoei buruzko lerroa (tarifazio anonimoko, libreko eta elektronikoko baliabideak).
 - NGI Mobifree. (2024-06M). "Askatasuna sakelako etikoen softwarean eta pertsonarengan zentratuta".

XR4ED, Master, Spirit, Vox4Reality. Errealitate hedatua hezkuntzarako, fabrikaziorako, telepresentzia duten zerbitzu teknikoetarako eta adimen artifizialerako. 4 klusterra Horizon berrikuntza esparruan.

- Digitalizazio, industria eta espazioko 4. klusterra. Teknologia humanizatzaileen "Human" atala.
- **XR4ED. HORIZON-CL4-2022-HUMAN-01-19**. Hezkuntza. Ikaskuntzako eta elkarreragineko ekintza berritzaileak. Hurrengo epemuga, 24.06.03.
- **MASTER. HORIZON-CL4-2022-HUMAN-01-19**. Fabrikazioa, robotika, 4.0 industria. Ikaskuntzako eta elkarreragineko ekintza berritzaileak.
- **SPIRIT. HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-25**. "Elkarlaneko telepresentzia hedatuko" ekintza berritzaileak, hala nola urruneko zerbitzu teknikoa emateko errealitate hedatua erabiltzea. Hurrengo epemuga, 24.06.27.
- **VOXReality. HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-13**. Ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak. Errealitate hedatuaren modelajea adimen artifizialarekin, ETEetan. Hurrengo epemuga, 24.06.05.

INDUSAC. Lankidetzak akademikoa industria-premiekin. 4 klusterra Horizon berrikuntza esparruan.

- **HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-20**. Ikasleentzako eta ikertzaile-taldeentzako deialdia. "Industriaren eta akademiaren arteko ezagutza-truke berri bat probatzea, enpresen beharretan oinarrituta". Digitalizazioko, industriako eta espazioko 4. klusterraren laguntza- eta koordinazio-ekintzak. Teknologia humanizatzaileen "Human" atala.

Segurtasuna. Europako ikerketa-sareak. Legez kanpoko trafikoak detektatzea. Horizon berrikuntza esparrua.

- **SEC-21-GM-2016-2017**. Segurtasuneko agenteen eta "praktikatzaileen" (adituak) Europako sareak. Horizon 2020 programatik datozen I+G ildoak.
 - Kalamuzko eta kanabisezko produktuetan kanabinoideen maila zehatz neurtzeko hobetutako tresna eramangarriak.
 - Bidaiarien fluxuak azkar eta ez intrusiboki kontrolatzea, gorputzean eramaten diren drogak detektatzeko eta ekiditeko.
 - Aduanetako funtzionarioei plastikoen biodegradagarritasun aitortua egiaztatzen laguntzeko software-tresna eta datu-basea.
 - Web iluna monitorizatzea Substantzia Psikoaktibo Berrien (NSP), su-armen eta beste kontrabando batzuen legez kontrako merkataritzari aurre egiteko.

"EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN" webgunea